MUÑOGAIN ELKARTEA

GARIN auzoa, 20200 BEASAIN

GARINGO 8. MENDI LASTERKETA HERRIKOIA

ARAUDIA

* KOPURUA: 300 partaide (Izen-emate kopurua betetzean, EZ da lasterketan apuntatzeko modurik izango, ez webgune bitartez eta ezta egunean bertan ere. Ordainketa egiten ez duen izen-emateari, e-mail bitartez jakinaraziko zaio eta egun bat izango du ordainketa burutzeko, bestela izen-emate zerrendatik ezabatuko da.)

** APARKALEKUA: Auzogunean aparkatzen duten ibilgailuek, lasterketa eta sari banaketa amaitu arte ezin izango dira etxera bueltan atera

1.- Proban edonork hartu dezake parte, 18 urtetik gorakoa izanik, sexu, adin edo bizilekuaren araberako alderaketak egin gabe.

2.- Bi kategoria bereziko dira: gizonezkoak eta emakumezkoak

3.- Karreraren irteera Garingo plazan izango da 2019/01/19 datan, eguerdiko 12:00-etan, San Sebastian eguna eta bertako jaiak ospatzen direlarik.

4.- Lasterketak 11km izango ditu, 3 itzuli desberdin egin beharko direlarik. Ibilbidea ondo seinalatua egongo da eta antolatzaileak ibilbidean zehar banatuko dira, inork ez dezan bide-laburrik hartu. Horrela bada, parte-hartzailea momentuan izango da deskalifikatua.

5.- Izen-emateak:

- www.kronoak.com, webgunean gauzatu ahal izango dira proba egunaren aurretik, 2019/01/18 _ 22:00 data eta ordua izanik horretarako epe-muga.
- Garingo plazan proba egunean, 11:00 - 11:40 tartean.

6.- Dortsala eta chip-a:

- Hartzeko:
  - Garingo plazan proba egunean, 11:00 - 11:40 tartean.
- Itzultzeko:
  - Helmugan, lasterketa amaitzean. Dortsala zozketarako gorde beharko da.
- Kokapena:
  - Dortsala bularrean eta ikusgai eraman beharko da. Parte-hartzaileak ez badu betebehar hori gauzatzen, deskalifikatua izan daiteke.

7.- Itzuli bakoitzeko, edariak banatuko dira helmuga gunean eta lasterketa amaitzean, lunch txiki bat egongo da parte-hartzaileentzat.

8.- Epaileen erabakiak apelaezinak izango dira.

9.- Soilik antolakuntzak bahimendutako ibilgailuek jarraitu ahal izango dute karrera.

10.- Antolakuntzak aurre-abisurik gabe, probaren ibilbidea aldatzeko eskubidea izangodu.

11.- Antolakuntza ez da arduradun egiten karreran zehar izandako ezbehar edo lesioez.

12.- Sari banaketak lasterketako azken partaideak iristean izango dira. Lasterketa martxan dagoen bitartean zenbait gauza zozketatuko dira parte-hartzaileen artean, saria hartzeko, dortsalarekin azaltzea derrigorrezkoa izango delarik.